

Arakak

5

BIDEOAREN EDUKIAREN LABURPENA

Bideoa lau zati edo atal nagusitan dago zatitua. Gehienetan, ataleko albiste bat jorratzen da. Atalek euren helburu eta edukiak dituzte. Atal bakoitza bere izenburuarekin hasten da eta, ia beti, bukatzen atalean landutako hainbat kontzeptu gramatikal, pantaila bereziaz gogoratuz.

Gida didaktiko honetan pantaila bereziak dituzten atalak “**Pantaila gramatikal berezia**” leloaz adierazten dira.

Pantaila berezi hauetan, atalean esandako esaldi bat edo gehiago errepikatu ondoren, esaldiak gordetzen duen kontzeptu gramatikala adierazten da, errotulu bidez. Horregatik, pantaila hauetara iristean, agertzen dena landu ahal izateko, bideoa gelditzea proposatzen da.

OHARRA: Zintaren hasieran, 2 minutuz, koloretako ohiko barrak eta txistu hotsa dituzu zure telebistaren koloreak eta hotsa egokitzeko.

Lehen kanpai hotsa entzutean, jarri zure bideoaren denbora neurgailua 00:00etan.

SARRERA (00:00) Albistegiarekin hasi aurretik Bakarnek pozez gainezka agurtzen gaitu. Izan ere, Mirutegiakoek jakin berri dute ikusle kopuru handia dutela. Hori dela eta, eskerrak ematen dizkigute. Mirutegiako kazetariak, banan-banan, bakoitzak bere erara, eskerrak ematen dizkigute.

KULTURA (01.23)

Jonek, bideo bat medio, koloreen berri ematen digu. Bideo horretan, lehendabizi, kolorea zer den eta nola ikusten dugun azaltzen zaigu. Ondoren, kolore primarioak edo gurasoak zein diren esaten da. Jarraian, kolore sekundario edo haurrak nola sortzen diren eta nola deitzen diren azaltzen da. Eta bukatzeko, kolore zuria eta beltza zeren emaitza diren argitzen da.

“Pantaila gramatikal berezia”

GIZARTEA (06.22)

Anak Uleta auzoan egiten ari diren lanek trafikoan duten eraginaz argibide batzuk ematen ditu. Antza denez, udalak konponketa lan batzuei ekin dio Uleta auzoan eta hainbat kale itxi egin behar izan ditu. Hori dela eta, kale batzuetan autoentzako norabidea aldatu egin dute. Anak azalduko digu, Uleta auzora autoz bagoaz, nondik ibili ahal dugun eta nondik ezin dugun ibili.

“Pantaila gramatikal berezia”

KIROLAK - *iturrien* prestatzea - (09:29)

Albistegia bukatzeko, kirolen atalean, Anderrek eta Jonek antzinako jolas baten berri emango digute. *Iturrika* deitzen da jolasa eta aldez aurretik egokitutako botila batzuen metalezko estalkiez, *iturriez*, jolasten da. Hala bada, saioaren lehen atalean Anderrek eta Jonek jolasteko behar diren tresnak nola prestatzen diren azaltzen digute.

KIROLAK - *jolasaren arauak* - (12:10)

Bigarren atalean, kalera aterata, jolasteko eremua nola prestatzen den, jolasaren arauak zein diren eta nola jolasten den erakusten digute.

“Pantaila gramatikal berezia”

HELBURUAK ETA EDUKIAK

SARRERA

HELBURUA

Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoak ulertzea.

EDUKIAK

ZERA :

Nik zera esan nahi dizuet: maite zaituztet.

NOMINALIZAZIOA: -T(Z)EKO

Nik esan nahi dizuet horrela jarraitzeko.

KONPLETIBOA: -(E)LA

Nik esan nahi dizuet oso jatorrak zaretela eta, beti, nire bihotzean izango zaretela.

KULTURA

HELBURUA

Gai baten gaineko azalpenak ematen trebatzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Uhina / Erradiazio elektromagnetikoa / Sentsazioa / Garuna / Materia

Kolore primarioak: gorria, berdea, urdina. **Kolore sekundarioak:** horia, magenta, ziana.

ADITZAK

Zurgatu / Islatu / Topo egin / Nahastu

BALDINTZAZKOAK: BA-, -Z GERO (ikus pantaila gramatikal berezian)

Uhin guztiak zurgatzen **baditu**, objektua beltz ikusten da.

Ziana eta horia **nahastuz gero**, guraso berdea izango dugu.

KONPLETIBOA: -(E)LA

Ziur nago ongi pasatuko **duzuela**.

KULTURA

Koloreen mundua gidatzen duten oinarrizko arauak.

GIZARTEA

HELBURUAK

Hizkuntzaren funtzio komunikatiboaz jabetzea eta informazioa era antolatuan ematea.

EDUKIAK

ADBERTSATIBOAK: DENA DELA, DENA DEN, NOLA NAHI ERE, HALA ERE, HALERE, HALA ETA GUZTIZ ERE, HALAZ ERE, HALARIK ERE

Dena dela, esan behar da, udalak etxerik etxe banatu dituela planoak

BEHAR / EZIN / AHAL INSTRUMENTALA: -Z

Txiribita kalean **autoz ezin** da ibili.

Urturi kalea hartu **behar** duzu.

Beste kale guztietan ibili **ahal** da **autoz**.

KONTSEKUTIBOAK: BERAZ, HORTAZ, ORDUAN, BADA, ONDORIOZ

Beraz, Arronte kalean ere ezin da autoz ibili.

Ondorioz, kale batzuk itxita daude.

BALDINTZAZKOAK: -BA

Irten nahi **badugu**.

Lokia kalean bizi **bazara**.

Planoa jaso ez **baduzue**.

KIROLAK

HELBURUAK

Jolas baten azalpena modu antolatuan egiten trebatzea.
Jolasetan, bizitzako hainbat egoeratan legez, arauak ezagutzeak eta
haiei jarraitzeak duen garrantziaz ohartzea.

EDUKIAK

ADITZA: (AGINTERA)

Hasi (has zaitetz) / Hartu (har ezazu) / Kendu (ken iezaiozu) / Moztu (motz ezazu)
Ipin (ipin ezazu)

ADITZA: (NOR-NORI-NORK) (ikus pantaila gramatikal berezian)

KULTURA

Zaharkiturik gelditu diren jolasak medio, ikasleen aurreko belaunaldietakoek
aisialdia zertan ematen zuten ezagutu. Jolas haiek ezagutuz, orduko gazteen
izaeraren, irudimenaren eta baliabideen gainean hausnarketa egingo dugu.

BIDEOA IKUSI ETA GERO, EGITEKO MODUKO ARIKETA OSAGARRIAK

SARRERA

—Ezkutuko hitzaren jolasa.

Azalpena: ikasleak bi taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzak hitz bat erabakiko du eta ezkutuan gordeko. Hitzak denon artean adostutako gairen batekin zerikusia izan beharko du, aukerak mugatzeko. Ondoren, talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du. Jarraian, lehenengo arituko den taldearen ordezkaria denen aurrera aterako da. Beste taldeko ordezkariak arituko den taldeko partaideei, ez aurrera atera den ordezkariari, paperean idatzi duten hitza erakutsiko die.

Orain taldeko partaideek bere ordezkariaren eskariei erantzungo diete.

Adibidez: Gaia geografia izango da eta lehenbizi arituko den taldeari **IBAIA** hitza erakutsi diote.

- ORDEZKARIA.- Mikel, zerbait esan nahi al didazu?
MIKEL.- Bai. Nik zera esan nahi dizut, busti egiten du.
- ORDEZKARIA.- Jon, zer esan nahi didazu?
JON.- Nik esango dizut arrainak izaten dituela.
- ORDEZKARIA.- Uste dut badakidala zer den. Itsasoa da.
- PARTAIDEEK.- Ez.
- ORDEZKARIA.- Beno, ea, Karlos zer esango didazu?
KARLOS.- Nik esan nahi dizut ur gozoa duela.
- ORDEZKARIA.- Badakit zer den. Ibaia.
- PARTAIDEEK.- Bai.

Ondoren, gauza bera egingo dute beste taldekoek.

KULTURA

—Koloreen atal hau lantzeko, bideoan esaten dena frogatzea izango da modurik egokiena. Horretarako, kolore primarioak eta sekundarioak ordezkatzeko dituzten plastikozko xafla gardenak eskuratuko ditugu, eta, bideoan esaten diren bikoteak aukeratu ondoren, bata bestearen gainean jarriko ditugu eta haien atzealdetik argi bati begiratu. Bikotea gainjarri dugun eremuan beste kolore bat izango dugu.

Koloreen gainean gehiago jakin nahi badugu, liburutegira jotzeko eskatuko diegu ikasleei, eta handik ateratakoarekin txostentxo bat prestatzeko.

GIZARTEA

—**Ahal da, ezin da eta behar da.**

Ikasleei toki baten izena esango diegu eta eurek, toki horren izenaz gain, bertan zer egin ahal den, zer ezin den egin eta zer egin behar den idatziko dute.

Adibidez:

Guk.- IKASTETXEAN
Ikasleek.- Ikastetxean ikasi egin **behar** da.
Ikastetxean jolastu **ahal** da
Ikastetxean atea apurtu **ahal** da baina ez da apurtu **behar**.
Ikastetxean errespetuz tratatu **behar** dira irakasleak.
Ikastetxean **ezin** da surf egin.
Ikastetxean paretak zikindu **ahal** dira baina ez dira zikindu **behar**.

...

Ekintza bat ere erabil dezakegu.

Adibidez:

Guk.- AUTOA GIDATZEAN
Ikasleek.- Autoa gidatzean **ezin** da egunkaria irakurri.
Autoa gidatzean adi-adi joan **behar** da.
Autoa gidatzean musika baxu-baxu entzun **ahal** da.
Autoa gidatzean telefonoz hitz egin **ahal** da baina ez da egin **behar**

KIROLAK

—Bideoan ikusitako jolasa, *iturrika*, jolastea izango da modurik egokiena atal hau lantzeko. Dena dela, jolastu aurretik, denok adostu beharko ditugu jolasaren arauak, dela bideoan esandakoak gogoratuz, dela, haiez gain, arau berriak ezarriz. Beraz, jolasten hasi aurretik, estalkitxoak edo *iturriak* prestatu beharko ditugu. Hau egiteko, bideoan erakutsitakoari jarraitzea izango litzateke egokiena, baina, denboraz urri bagabiltza, nahikoa izango da *iturria* eskuratzea eta barrua pisu apur bat duen edozein gaiz betetzea (laranja azala, plastilina...).

Iturria prest daukagunean, patiora joko dugu eta, klarionaz bidea marraztu ondoren, arauak gogoratzeko eskatuko diegu ikasleei.

Hori guztia egin eta gero, jolasten has gaitezke.

OHARRA

Iturrien prestaketa denon artean egitea zilegi da baina, gero, jolasteko, hobe izango da taldeak egitea, bestela jokalaria gehiegi pilatuko zaigu ibilbide berean. Horrela bada, bi edo hiru ibilbide izango ditugu eta jokalaria, batekin bukatu eta gero, beste batean ibil daitezke. Ibilbide bakoitzari puntuazio bat eman eta, puntu gehien lortu duten ikasleentzat, ibilbide berri zailagoa, egingo dugu, finala joka dezaten.

EBALUAZIOA

Sarrera eta gizartea ataletan egin ditugun ekintzak izan daitezke ebaluaziorako proposak.

Sarrera atala aitzakiatzat hartuta egin dugun ariketan ikasleak, ahoz eta bat-batean, nola moldatzen diren eta, bideoa ikusi aurretik eta bideoa ikustean, landutako kontzeptuez zein neurritaraino jabetu diren antzemango dugu.

Gizartea atalaz baliatuz egin dugun ekintzan ikasleek esan beharrekoa idatziz prestatu dute. Idatzitakoa eskuratuko dugu eta beraz baliatuko gara ikasleen maila zein den jakiteko.

Kirolak eta kultura atalak lantzeko egin ditugun ekintzek ere hainbat irizpide eman diezagukete ikasleen euskararen garapenaren gainean.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- paperean prestatutako txostena txukun dagoen.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideo ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Ahozko saioetan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongiosatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren balorazioa egingo dugu.